

Gurutze Izagirre Intxauspe

GASTEIZ— Joseba Diez Antxustegi (1992, Gasteiz) uda giroko Eusko Legebiltzarrean erantzun die galderei. Eraikinean egiten ari diren konponketa lanen zaratara baino ez da entzuten; gainerakoan, hutsik dago legebiltzarra.

EAJren legebiltzar taldeko eledun izendatu zaituzte. Itzal luzeko ordezkari bat ordezkatu duzu: Joseba Egibar. Zamarik sumatzen duzu?

Niretzat beti izan da erreferente bat, eta interes handiz segitu diot. Imanol Pradalesen inbestidurarako prestatu nuen mintzaldian ere berak esandakoak errepasatu nituen.

EAJ botoetan gailenduta baina eserlekuetan EH Bildurekin partekatuta iritsi zen legebiltzarreko, 27na eskuratuta. Legebiltzarreko jardunean eragingo du?

Ohituta gaude gehiengo osoak ez izatera. Aitortu behar da EH Bilduk oso emaitza onak izan zituela. Guk irabazi genituen, ordea, hauteskundeak, eta gurea zen gobernu osatzeko ardura. Denborak erakutsiko digu akordioetarako gai izango ote garen.

EAJren eta EH Bilduren artean, 710.000 bototik gora jaso zenuzuten. Legebiltzarrean ordezkariak duten beste alderdi guztiak zenbatuta ere, ia bikoitza da boto abertzalea. Zer baitetan igerriko da?

Espero dut gehiengo abertzale hori erabili ahal izatea abertzaletasuna indartzeko. Alderdi abertzaleak indartsu gaude, baina indartu behar dugu abertzaletasuna. Indartu behar dugu euskaratik, euskal kulturatik eta abertzale sentimendu horretatik. Konfiantza handia jaso dugu indar abertzaleok, baina boto emaile horiek abertzale bihurtu behar ditugu, ze, horietako boto emaile batzuk, beharbada, ez dira abertzaleak, eta botoa eman digute bai guri, bai EH Bilduri, beharbada, beste arrazoi batzuegatik. Beraz, hor daukagu ardura, eta aukera bat abertzaletasuna indartzeko.

Nola egin liteke hori?

Herri ikuspegitik euskara da elementu oso garrantzitsua. Euskara gehiago erabili behar dugu legebiltzarrean, alderdian eta politikan. Beharbada azkenaldian ez dugu erabili hainbeste. Euskara da euskaldun egiten gaituena, eta hori indartu nahi genuke. Egin beharko dugu herri eztabaida bat gai horren gainean, eta alderdi abertzaleok ardura bat izango dugu hor.

Maria Ubarretxena Eusko Jaurralitzako eledunak esaten zigun estatutu berriari begira ga-

«Alderdi abertzaleak indartsu gaude, baina indartu behar dugu abertzaletasuna»

JOSEBA DIEZ ANTJUSTEGI

EAJren eleduna Eusko Legebiltzarrean

Lider berri batekin talde berri bat hasi dela azpimarratu du, eta aurreko taldearen lana eskertu. Uste du EAJk ilusioa piztea lortu behar duela, «herri honentzako proiektuak landuta».

rrantzi handiagoa ematen ziola akordio zabal bati, epeei baino. Egutegiari zer garrantzi ematen diozu?

Autogobernuaren gaia lehentasun bat izango da gobernu honentzat. Argi daukagu gai horri heldu behar diogula legealdi honetan. Andoni Ortuzarrek, EAJren EBBko presidentek, ardura hartu zuen bilera sorta bat hasteko beste alderdiekin, eta lidergoa hartzeko prozesu horretan. Estatutu berriari dagokionez, uste dut garrantzitsua dela ezberdinen arteko akordioa lortzea, ez bakarrik eduki aldetik, nahiz eta garrantzitsua izan pluraltasuna bermatzea. Batez ere taktikoki. Esaten da [Espainiako gobernuaren] Pedro Sanchezen gobernuan izatea aukera leihobat dela, eta aukera leihohori aprobetxatu behar dugu, eta haren gobernuaren sostengatzen duen gehiengoak botoa eman behar badiogu guk onartzen dugun akordio horri, logikoena izango litzateke Sanchezen alderdiarekin akordioa eginda joatea.

Legealdiari eusteko moduan ikusten duzu Sanchez?

Gustatuko litzaidake legealdia osorik betetzea, uste dudalako ardura politikoa daukagunok horretarako gaudela, herritarrek ematen dizkiguten emaitzak kudeatzeko, eta ezin dugu ohikotzat hartu bi urtean behin hauteskundeak errepikatzea.



«Konfiantza handia jaso dugu abertzaleok, baina boto emaile horiek abertzale bihurtu behar ditugu»

«Hori gertatzen da batzuetan: egunero lana egin behar dugula Sanchezekin sinatutakoa betetzeko»

«Anduezak Gogora-ri buruz esandakoa dela eta, gauza bat da diskurtsoa, eta beste bat eguneroko kudeaketa»

Eneko Andueza PSE-EEko idazkari nagusiak muga batzuk ezarri ditu estatutu berriari buruz jardutean. Sanchezek EAJren eta EH Bilduren beharra du legealdiari eusteko. PSE-PSOE indar harremanak eragin dezake akordioan?

Lehenik eta behin, errespetu osoa beste alderdi batzuen antolakuntzari. Baina egia da EAJk Madrilen baduela pisu bat eta negoziatzeko gaitasun bat. Guk Sanchezekin akordio bat itxi genuen, eta akordio hori errespetatzeko lana egiten dugu egunero. Hori gertatzen da batzuetan: egunero lana egin behar dugula sinatutakoa betetzeko.

Autogobernu lantalderik ez da sortuko legebiltzarrean, ezta?

Beste legealdi batzuetan egon da, baina orain helburua gehiago da alderdien arteko akordioa lortzea, eta gero legebiltzarreara ekartzea. Eta hor lehendakariak bere konpromisoa erakutsi du alderdiek lortzen duten akordio hori gidatzeko. Pradales lehendakariaren lidergo mota azpimarratu nahi nuke: ez da lidergo mesianiko bat, ez du esango: «Hau da nire erredua, eta etorri nirekin».

Erabakigunea legebiltzarretik kanpo egongo da, beraz?

Euskal gizartea oso askotarikoa da, eta nik uste dut akordio hori alderdien esku uztea dela egokiena, eta gero akordio hori legebiltzarreara ekartzea.

Uste duzu herritarrei iristen zaiela Gernikako Estatutua betetzeari buruzko eskaera edo estatutu berri batena? Nola azalduko zenieke hori zertarako den?

Nik uste dut garrantzitsua dela herritarrei jakinaraztea zein garrantzitsua den autogobernuaren haien eguneroko bizimodurako.

Adibidez?

Etxebizitzaren auzian, zerga kontuetan... Estatutik ez daukan Europako herrialdeetatik guk daukagu autogobernuri zabalena, baina gai izan behar dugu herritarrei azaltzeko zergatik den garrantzitsua, eta beharbada ez dugu asmatu azaltzen zergatik den hobe beraien eguneroko bizimodurako erabakiak hemen hartzea.

Zer adierazten dizu Pradalesek lehen hilabetean egin duen bi-deak?

Uste dut ilusio handiz iritsi dela, eta herri hau gidatzeko indarrarekin. Hori erakusten ari da. Koalizio gobernuaren osatu ostean, beste alderdiekin eta eragileekin bilera sorta bati ekin zion, herri honetako erronka nagusiak finkatzeko eta erronka horien inguruan akordioak lantzeko.

Egon dira aurreko gobernuarekiko eten bat adieraz dezaketenen neurri batzuk: bihurtz kirurgiarren espezialitatea Basurtun uztea eta Emakunde Lehendakari-tzan kokatzea berriz, kasurako.

Joseba Diez
Antxustegi. RAUL
BOGAJO / FOKU



Ez nuke esango zuzenketak direnik. Lehendakari bakoitzak eta gobernu bakoitzak erabaki diferenteak hartzen ditu une bakoitzean. Bera dago orain, eta herri honen etorkizunerako proiektu bat dauka. Lidergo ezbedinak dira. Iñigo Urkullu lider oso garrantzitsua izan dela uste dut. Herri hobea utzi digu hartu zuena baino. Eta orain Pradales iritsi da, eta eredu propioa dauka.

Segurtasun arazo bat dugula diozu. Nola konpontzen da? Polizia gehiago jarrita?

Nik uste dut Poliziari baliabide gehiago eman behar dizkiogula delituak eteteko.

Baliabideak ematea zer da?

Guk proposatzen dugu Ertzaintzak joan behar badu delitu bat eragoztera, ba, armatuta joan behar duela. Baliabideak eta segurtasuna eman behar dizkiegu.

Eta prebentzioaren bidea ez duzue ikusten?

Prebentzioa bada Ertzaintza kaletan gehiago egotea ere.

Badaude beste eredu batzuk prebentzioa lantzen dutena gizarte kohesioaren aldetik...

Hori horrela da, bai. Zenbat eta desberdintasun gutxiago gizarte batean, orduan eta seguruagoa da gizarte hori. Eta ezberdintasunei erreparatzen badiegu, gure herrian abiapuntu ona daukagu segurtasun arazoei aurre egiteko.

Josu Erkoreka Segurtasun sailburu ohiak itxi gabeko auzi batzuk utzi ditu. Tolosako inauterietan Ertzaintzak zauritutako gaztearena eta Realaren partida batean zauritutako beste andre batena argitzeko daude. Bost hilabete igaro dira. Sumatzen duzu gardentasun faltarik Ertzaintzan?

Nik ez nuke esango Ertzaintzan gardentasuna falta denik. Beti esan izan dugu pairatu dituzten pertsonengatik argitu behar direla zorigaitzeko horrelako gertakariak, baina baita Ertzaintzaren izen ona bermatze aldera ere. Ez dakit zenbat denbora behar izaten den horrelako kontuak argitzeko, baina administrazio prozedurak ez dira laburrak izaten, eta bermeak behar ditugu.

Justizia Saila PSEren esku geratu izanak ezinegona eragin du EAJren sektore batean. Anduezak berak, eta Maria Jesus San Jose sailburuak ere, lerratuegi jardun izana egotzi diote Gogora-ri. Uste duzu aldaketarik izango dela orain arteko ildoan?

Ez dut uste, eta ez litzaidake gustatuko horrela izatea. Nik uste dut Gogora-k egindako lana goraiatzekoa dela. Giza eskubideen urraketa ugari egon dira herri honetan, eta guztiek merezi dute aitortza eta erreparazioa,

eta uste dut Gogora bide horretan ibili dela. Esango nuke gobernu honek bide berari segituko diola, nahiz eta beste alderdi batekoa izan sail horretan.

Anduezak beste ildo bat ezarriko dela esan du.

Gauza bat da diskurtsoa, eta beste bat eguneroko kudeaketa. Uste dut gobernu akordioan garbi daudela zein diren jarrerak gai horretan. Giza eskubide guztien aitortza eta erreparazioa da batzen gaituena, eta etorkizunean ere uste dut horrela izango dela. Uleritzen dut Anduezak diskurtso propioa eduki nahi izatea, baina haren alderdia kudeaketan arituko da. Bi alderdi egon arren, gobernu bakarra izango da, lehendakariak gidatuta. Eztabaidak izan ditza-kegu, baina kudeaketan gobernu akordioa betetzen saiatuko dira.

Jose Antonio Susok esan du ABBko lehendakartzara ez dela berriz aurkeztuko. Ikusten duzu zeure burua hurrengo ABBko buru?

Alderdiak erakutsi du badaudela horrelako erantzukizun bat hartzeko gai direnak. Baina nik oraintxe legebiltzar taldeko bozeramaile ikusten dut neure burua, nahikoa lan bada eta.

Alderdi barne gogoetan ari da. Nola ikusten duzu?

Hurrengo hamarkadako Euskadi gidatzeko gai izan behar dugu. Azken hauteskunde zikloan lortutako emaitzak ez dira izan nahi genituenak, baina erakundeetan buruan gaude. Beste bultzada bat eman behar diogu alderdiari.

Zerbait aldatu behar luke EAJk?
EAJk ilusioa piztea lortu behar du, eta herri honentzako proiektuak landuta lortzen da hori. Lehendakari berria daukagu; alderdiak hurrengo hilabeteetan izango du bere bilera nagusia, eta egingo dugu egin beharrekoa. Jendeak uste du EAJ beti egon dela agintean erraz, baina zailtasun askori egin behar izan dio aurre, eta beti lortu dugu aurrera egitea.

Politikaren friki gisa definitu izan duzu zeure burua. Nola ikusten dituzu adinkideak?

Lagunengan ikusten dudana da politikarekiko interesa badutela, baina ez dute interesik alderdi politikoetan. Eta horrek kezkatzen nau, ze gaur egun daukagun sisteman alderdi politikoak gara gauzak aldatzeko tresnarik egokiena. Kezkatuta ikusten ditut etxebizitzarengatik, segurtasunarengatik, enpleguaren kalitatearengatik... Kezka horiek politikoak dira, baina penaz ikusten dut alderdi politikoak urruti ikustea. Autokritika egin beharko dugu alderdiok, baina tirabiraka gabiltzala ikusten dute agian. ●